

LEHIAKETAREN OINARRIAK "ESTELLA-LIZARRAKO UDALA FESTETAKO KARTELAK"

2018 urtea

1.- Lehiaketa honek Estella-Lizarra Herriko festetako kartel ofiziala hautatzea du helburu eta bertan nahi duten pertsona guztiek har dezakete parte, nahi duten adina obra aurkez dezaketelarik, baldintza bakarra da lanak jatorrizkoak eta argitaratu gabeak izatea, eta teknika librean egina.

Lehiaketa honek hiru maila ditu:

a) Heldua: ... 2003ko abenduaren 31n edo lehenago jaiotako pertsonak.

b) Ertaina: ... 2004ko urtarrilaren 1a eta 2007ko abenduaren 31 artean jaiotako pertsonak.

c) Txikia: 2008ko urtarrilaren 1ean edo geroago jaiotako pertsonak.

2.- Kartelak aurkezteko epea luzaezina izanen da eta hurrengo **2018ko EKAINAREN 22an**, 14:00etan amaituko da.

3.- Lehiakideek Lizarrako Udalean aurkeztuko dituzte horien lanak eta igorri daitezke fakturazioaren bidez, postaz edo eskuan emanaz. Udalak ez du erantzukizunik izanen suerta daitezkeen ustekabeko kalteetan, galeretan, ezta lanak itzultzean ere lehiaketa bukatutakoan.

4.- Lehiaketa amaitu ondoren eta 11. oinarriak zehazten duenaren arabera, lehiakideek hilabeteko epea izanen dute kartelak jaso ahal izateko, sarituak balego izan ezik, horien lanak udal jabegoan geratuko baitira. Aipatu epean jasotzen ez diren kartelak ere udal jabegora igaroko dira, egileek uko egiten dietela ulertuko baita, era honetan erreklamazio edo/eta kalte-ordainaren eskubide guztiak galduz. Kartelak bidaltzeko eta itzultzeko gastuak lehiakideen kontura izanen dira.

5.- Kartelak egilearen sinadurarik gabe aurkeztuko dira eta egile beraiek libreki aukeratuko duten lempean, zeina lanaren atzealdean idatziko baita.

Kartelari kartazal bat erantsiko zaio, kanpoko aldean aipatutako lema eta aurkezten den maila (Heldua, Ertaina edo Txikia) idatziko da.

Barruan, berriz, makinan edo era irakurgarrian idatzita, egileari buruzko datuak azalduko dira. (Izen-abizenak, helbidea, posta elektronikoa, telefonoa eta NANaren fotokopia).

"Heldua" mailan aurkeztutako lehiakideek, aipatu kartazalean, erantzukizunpeko adierazpena aurkeztuko dute eta bertan adieraziko dute aurkeztutako lanak lehenbiziko oinarriak xedatzen duena betetzen duela.

6.- Obrek neurri bakarra edukiko dute, 68 cm altuera bider 48 cm zabalera eta euskarri zurrunaren gainean eta behar bezala enbalaturik aurkeztu beharko dira.

Karteletan honako testu hau azalduko da, zeina kartelaren ertzetatik gutxienez 1,5 zentimetroetara egonen baita:

FIESTAS DE ESTELLA-LIZARRAKO JAIK 2018. 3-9 agosto/abuztua.

7.- Epaimahai Kalifikatzailea ondorengo hauek osatuko dute:

- Udalaren Kultura Batzordearen presidentea,
- Udalaren Kultura Batzordearen bi kide,
- Hiriko Peñeteko bi ordezkari,
- Hiriko Ikastetxe ezberdinetako hiru irakasle,
- Arte edo/eta diseinu grafikoan hiru aditu,
- Aftelae argazki-elkartearen ordezkari bat eta,
- Gustavo de Maeztu Museoko zuzendaria.

Epaimahai-kalifikatzailea osatuko duten kideen izendapena Alkatetza Ebazpenaren bidez egingen da, adierazitako osaera errespetatuz, Kultura Batzordeburuak proposatuta, eta epaimahaia osatu aurretik.

8.- Epaimahai Kalifikatzailearen epaitza apelaezina izanen da, proposamen loteslea eginez, Tokiko Gobernu-Batzordeak, organo deitzaileak, proposamen honen arabera erabakia luzatuko duena, esleipena egin dezan, hau dena lehenengo oinarria betetzen ez bada izan ezik - Tokiko Gobernu-Batzordeak aurretik egiaztatzen badu. Horrela, Tokiko Gobernu-Batzordearen erabakiak, ohizko komunikabideen bidez jakinaraziko dela, epaimahaiak proposatzen duen kartelari saria esleituko dio, esleitzeko unean lehenengo oinarriak xedatzen duena ez duela betetzen egiaztatzen bada eta Batzorde berak horrela aldarrikatzen badu izan ezik, kasu honetan saria Epaimahaiak hoberen baloratu duen hurrengo lanari, lehenbiziko oinarria betetzen badu, emanen zaio.

9.- Sari bakar bat eratzen da maila bakoitzeko, diru kopuruak honakoak izanik:

a) Heldua: 1.200,00 euro.

b) Ertaina: 250,00 euro.

c) Txikia: 100,00 euro, pintura material sorta batean.

Diru kopuru horiei PFEZ dela-eta dagokion atxikipena aplikatuko zaie, indarrean dagoen legeriaren arabera.

Aipatu sariak epaimahai kalifikatzailearen ustez merezi dituzten lanen egileei emanen zaizkie, hau dela eta epaimahaiak gordetzen du, bere ezaugarriengatik merezi duten kartelei, ezarritako sariak proposatzeko eskubidea, edo/eta saria hutsik gera dadin proposatzeko.

10.- Sariaren bitartez, Estella-Lizarrako Udalak eskuratuko ditu, beretako bakarrik eta mundu mailan, lan saridunari dagozkion jabetza intelektualeko eskubide ekonomiko guztiak; orobat, lan horiek erreproduzitu, banatu, jendaurrean paratu eta eraldatu ahalko ditu, libreki eta ezer gehiago ordaindu gabe, Jabetza Intelektualari buruzko Legearen Testu Bateratuaren 26. artikulua ezarritako epearen barruan. Eskubidea izanen du, baita ere, lana gaur ezaguna den edo geroan asma daitekeen beste edozein bitarteko edo euskarri ukigarri edo ezin ukituzko batean aurkezteko.

11.- Estella-Lizarrako Udalak parte hartzen duten kartel batzuekin edo guztiekin erakusketa publikoa egin dezake, alde aurretik iragarrita izanen diren toki, ordutegi eta datetan.

Kasu honetan, kartelen itzulketa hilabeteko epeaz egingen da, aipatutako erakusketa amaitzen den egunetik kontatuta.

12.- Lehiakideek, lehiaketa honetan parte hartzeko, eta horien lanak aurkeztearekin bat, oinarri hauek bere osotasunean onartuko dituzte.

Estella-Lizarra, 2018ko maiatzaren 10ean.